

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure ideia, eskola eta institutuei psikologoen laguntza eskaintzen dien enpresa bat sortzea da, ikasleen eta irakasleen osasun mentala hobetzeko. Enpresaren helburua ikasleen eta irakasleen osasun mentala zaintzea eta hobetzea da, haien errendimendua eta ongizatea sustatzeko.

Zerbitzuak banakako terapia saioak, taldeko terapia saioak, estresa, antsietatea eta depresioa prebenitzeko programak, eta irakasleei eta gurasoei orientazioa eta aholkularitza ematea izango lirateke.

Onurak, ikasleen errendimendua hobetzea, irakasleen ongizatea sustatzea eta eskola giro positiboagoa eta lagunkoiagoa sortzea dira. Enpresak lehenik eta behin ikasleen eta irakasleen osasun mentalaren diagnostikoa egingo luke, eta diagnostikoaren arabera, plan pertsonalizatu bat garatuko luke. Terapia saioen jarraipena eta ebaluazioa egingo dira, helburuak lortzen ari diren ikusteko. Enpresa honek ikasleen eta irakasleen osasun mentala hobetzeko tresna eraginkorrak eskainiko ditu, haien errendimendua eta ongizatea sustatuz.